

7. ORDENANTZA

Nafarroako Aldizkari Ofiziala - 50. zenbakia - Data 1998/04/27

II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

B A R A Ñ A I N

Ibilgailuak espaloietatik pasatzeko eta eremu publikoetan tokia erreserbatzeko lizentziak

1. artikulua. Bi gurpil baino gehiagoko ibilgailuak erabilera pribatuko lokal edo guneetan sar-atera egiteko, espaloietan edo oinezkoendako erabilera publikoko aldeetan barna baldin bada, beharrezkoa izanen da udalaren lizentzia edukitzea, "pasatzeko lizentzia", laburki.

Udalaren lizentzia beharko da, baita ere, eremu publikoetan edo erabilera publikoko lurretan denbora mugarik gabe edo gau eta egun tokia gordetzeko, helburua baldin bada salgaiekin, jendearekin, bezeroekin edo gisakoekin zamalanetan aritzea. Horri, laburki, "tokia erreserbatzeko lizentzia" erranen zaio eta saltoki edo jarduera zehatzetan ari direnen mesederako izanen da. Halaber, erreserba iraupen laburreko jardueretarako baldin bada, Udalaren lizentzia eskatuko da, laburki, "tokia aldi baterako erreserbatzeko lizentzia".

2. art. Horiek horrela badira ere, Udalak, bidezkotzat jotzen badu, zenbait tokitan aparkatzeko debekua ezar dezake, bai interes publikoko arrazoiengatik, baita hainbat lokal, jarduera edo sektore toki haietaz balia daitezzen ere.

3. art. Tokia erreserbatzeko nahiz pasatzeko lizentzia hauek nori eman erabakitzea, oro har, Udalaren borondatearen mende geldituko bada ere, ordenantza honetan aipatzen dira lizentzia emateko beharrezko diren baldintzak, baita hura ukatzeko kasu zehatzak ere.

4. art. Jende edo entitate publiko nahiz pribatu mota guztiek behar dituzte arestiko lizentziak, eta behar diren tasa eta eskubideen menpe geldituko dira.

5. art. Pasatzeko nahiz tokia erreserbatzeko lizentzia, gau eta eguneko edo denbora mugarik gabekoa, emateko eskumena Gobernu Batzordearena da, Alkatezaren edo informazio batzordeen proposamena jaso ondoan. Tokia aldi baterako erreserbatzeko lizentzia, berriz, eskumena alkatearena da.

6. art. Espreski debekaturik dago ondotik zehazten den hau:

a) Ibilgailuei sarbidea edo zintarrietako igoera errazteko asmoz, gailu finko edo mugikorrek paratzea erabilera publikoko bide edo eremuetan. Bidezkotzat hartzen den kasuetan soilik onartuko da pasabidea edo zintarri oketsa paratzea, eta beti ere ordenantzako baldintzen arabera.

b) Pintura, errotulu, seinale edo adierazpen suerte guztiak, grafikoak izan edo bertzelakoak izan, baldin eta tokia erreserbatzeko nahiz pasatzeko lizentziarik izan gabe, aipatu lizentziek aparkatzeko ezarri ohi dituzten mugapenei dagokienez nahasgarri izan daitezkeenak edo behar direnen ordeztu izan nahi dutenak.

c) Ibilgailu erabiltezinak, gurdiak edo bertzelakoak uztea lokalen sarreran edo inguruetan, aurreko atalean zehazten den asmo berarekin.

7. art. Izan daitezkeen bertzelako egoerez gain, hasiera batean ibilgailu edo gurdi erabilteztzat hartuko dira mekanika edo kontserbazioaren aldetik funtzionatzeko moduan ez daudenak, beren ezaugarriak direla eta hirirako erabilgarriak ez direnak eta zirkulazio baimenik ez dutenak edota Udalaren zerga-tasak ordaintzen ez dituztenak.

8. art. Aipatu kasu guztietan, udal zerbitzuek eraman, kendu edo ezabatzen ahal dituzte debekaturiko lanabes, seinale eta gainerakoak, aldez aurretik errekerimendurik egin beharrik izan gabe, eta udal biltegian altxatu. Hortik eragindako gastuak, zertarako paratu ziren, jarduera haiexen titularraren bizkar geldituko dira.

Era berean, zehapen edo zerga iruzurreko espedientea tramitatzen ahal da, eskubideak behar ez bezala erabiltzeagatik nahitaezko lizentziarik izan gabe.

Pasatzeko lizentziak

9. art. Pasatzeko lizentzia nahitaezkoa izanen da ordenantza honetako lehen epigrafean aipatzen den oinarritzko kasuan, nahiz eta hura erabiltzeko, pasatzeko aitzineko aldean aparkamenduak ez duen derrigor debekaturik egon behar, bai trafikoko egungo arauak direla eta debeku hori jadanik dagoelako, bai benetan ez delako erabiltzen, baita bertze edozein arrazoirengatik ere.

10. art. Pasatzeko lizentziak eredu ofizialeko eskabidearen bidez eskatuko dira, honako agiri hauekin batera aurkeztuko direlarik:

a) Lokal edo gune pribatuaren erabilera lizentziaren kopia edo testigantza, edo hura eskuratzeko egindako eskabidearena, tramiteak aldi berean egiten ari badira.

b) Lizentzia zer eraikuntza edo eremutarako eskatzen den, hango kokapenaren planoak, zein eskalatan egina dagoen adierazita.

c) Lokalaren planoak, hauek zehazten dituenak: banaketa, sarbideak, haiek igarotzeko pasabideak, ezaugarriak eta azalera.

d) Ibilgailuak utzi edo gordetzeko lokalak direnean, ibilgailuen matrikulen eta jabeen zerrenda erantsi beharko da, edo zein den haren xedea, komunitateko garajea egin gogo bada.

e) Bertze xederen baterako negozio-lokalak direnean, txosten labur bat erantsiko da, bertan gauzatzen den jarduerari buruzkoa, zehazturik banaz-bertze zenbat ibilgailu sartu eta ateratzen diren egunero bertatik.

11. art. Pasatzeko lizentziak eman, indarra izan eta haietaz baliatzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1.-Ibilgailuak gordetzeko lokalak

a) Lokal edo tokiaren benetako edukiera eta egiazko erabilpena, gutienez, borts turismorendako izatea, edo 4.000 kg-rainoko karga-ahalmena duten hiru garraio ibilgailurendako, edo 4.000 kg-tik goitiko karga-ahalmena duten birendako. Matrikulak eta titulartasuna kreditatu behar dira.

b) Ibilgailuendako berariaz utzitako toki bat izatea, inondik ere ehun metro karratu baino tikiagoa izaten ahal ez dena.

2.-Merkataritza eta industri erabilerako lokalak.

a) Jardueraren ezaugarri orokorrenagatik, ibilgailuen ohiko sartu-aterak nahitaezkoa izatea.

b) Gutxienez 40 metro karratuko tokia izatea, libre eta orduoro ibilgailu horientzat edo horien zamalanetarako erabiltzen dena.

c) Ibilgailuak konpontzeko tailerrak direnean, ibilgailuentzat eskatzen den azalera librea 25 metro karratukoa da.

Pasatzeko lizentzia hauek ematearen xedea publikoa denez, eman ondotik erabakia bertan behera utziko da, baldin eta egiaztatzen bada zamalanik egiten dela dagokion lokaletik at edo erabilera publikoko eremu edo gunean, lizentziaren onuraduna den jarduera edo titularraren fabore.

3.-Familia bakarreko etxebizitzak, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak araututako aldeetan.

a) Aldeak familia bakarreko etxebizitzetarako antolamendua izatea eta horrela eraikia izatea.

b) Eremu publikoan araututako jardueri mugapen nabarmenik ez ekartzea.

c) Familia bakarreko etxebizitzaren eremu pribatiboaren barnean aparkatzeko tokia izatea.

12. art. Gehienez ere 6 metroko lizentzia bakarra baino ezin da eman lokal bakoitzarentzat, lokaltzat hartzen delarik espazioko unitate fisikoa dena, bertzeetatik berezia obra-fabrikaz egindako bereizgarri erabateko eta behin-betikoen bidez.

Interes publikoagatik eta txosten teknikoa dela medio justifikatzen diren salbuespeneko kasuetan soilik handi daiteke aipatu luzera, konparaziorako, komenigarria denean ibilgailu aunitz sar eta ateratzeko sarbideak izatea edo behar bezala justifikaturiko bertzelako kasuetan.

13. art. Interes publikoa dela eta, lizentzia hauek izaera mugatzailea dutenez gero, kasu eginen da ez daitezen ondoko edo hurbileko lokalak lizentzia hauetaz balia, batez ere titularra bat bera bada, bat egitea edo pasatzeko lizentzia bakarra amankomunean erabiltzen ahal baldin bada.

14. art. Pasatzeko lizentzia emateak ez badakar berarekin aparkamendu publikoaren murrizketarik, Udalak alda ditzake arestian aipatu betebeharrak, beti ere bere zuhurtziaren arabera arrazoiturik eta egoera horrek dirauen bitartean.

15. art. Pasatzeko lizentzia ezarri nahi den tokian ibilgailuak gelditzea edo egotea baimendurik baldin badago, lizentziarekin batera bertan aparkatzeko debekua etorriko da, eta debekua adierazteko arauzko diskoak paratuko dira, lokal edo gune pribatuko sarbidearen bi aldeetara,. Haietan, gelditzeko edo aparkatzeko debekuak zer ordutegi duen, edo gau eta eguneko ote den agertuko da. Seinaleen arteko tartea baimenduriko pasabidearen zabaleraren tamainakoa izanen da, % 20 gehiago edo gutiago ere onartzen delarik, eta haien altuera, berriz, Zirkulazioaren gaineko araudiak eskatzen duen huraxe.

Udalak emanen ditu behar diren seinaleak, dagokien tasa ordaindu ondotik, baina titularraren kontura geldituko dira haien beren tokian paratu, zaindu eta mantentzeko lanak, eta Udalari itzuli beharko zaizkio baja gertatu edo pasatzeko lizentzia errebotatuz gero.

16. art. Lizentziaren titularrak zerrenda zuri-gorritz pintatuko du zintarria edo horren orde zurbidean dagoena, Zirkulazioaren gaineko araudiak agintzen duen moduan. Hasierako pintaketa nahiz geroko zainketa ezin hobea ere titularraren bizkar izanen da, haren betebeharra baita.

17. art. "Gau eta egunekoa" edo dagokion ordutegia idazteko lana ere esleipen hartzailearen esku geldituko da, emandako lizentziaren arabera, marra lodiz eta letra edo zenbakien tamaina tikiena 2 x 2,5 zentimetrokoa izanen delarik, ongi ikusteko moduko kolore beltzez.

18. art. Parean aparkatzeko debekua beraiekin dakarten pasatzeko lizentziak, ordutegi mugaturako nahiz gau eta egunerako eman daitezke.

19. art. Ordu jakin batzuetarako lizentziek, ibilgailuak pasatzeko baimena emanen dute gehienez ere 10 orduz egunean, jaiegunetan izan ezik, non eta ez den horietarako ere akordioen bat. Interesatuak eskatu beharko du nahi duen ordutegi zehatza, aipaturiko muga hori kontutan harturik.

Ordu jakin batzuetarako lizentzia horiek eskatuko dira eskuarki merkataritza nahiz industriako establezimenduetarako, ibilgailuak gordetzeko garajeak ez badira.

20. art. Gau eta egunerako lizentziak hagitz kasu bakan eta ezinbertzekoetan baizik ez dira emanen, konparaziorako, larrialdi zerbitzuentzat eta ibilgailuendako garajeak direnean eta Udalaren iritziz behar hori nahitaezkoa badute.

21. art. Debekuaren eraginpeko eremuan ibilgailua gelditu edo aparkatzea debekaturik dago; onartu egingen da, soil soilik, gidaria ibilgailuaren barrenean dagoenean eta eskatzen zaionean berehala kentzen badu bertatik, pasabidea erabili nahi bada eta beti ere harentzat ezarrita dagoen ordutegiaren barrenean bada.

22. art. Seinaleak behar bezala paratu eta zaindurik ez badaude, aginduta dagoen moduan, Udalak eta Udaltzaingoak ez diete bertan adierazitakoarengatik babesik emanen, ez zehapenak ezartzeari dagokionean, ez ibilgailuak nahitaez handik kenduz; eta, horretaz gain, emandako pasatzeko lizentzia kentzeko arrazoia izan daiteke.

23. art. Pasatzeko lizentziaren titularra bera da, objektiboki, erabilera publikoko zoru edo zintarriak jasan dezakeen kalte ororen erantzule. Horregatik, Udalak eska diezaioke hura konpondu, sendotu edo nahi den pasagunerako egokitzeko, bai lizentzia eman aurreko baldintza gisa, bai lizentzia eman ondoko edozein unetan. Jardueraren titular edo esleipen-hartzaile berria edo lokal edo gunearen jabea, horrelakorik bada, harekin batera izanen da erantzule aipatu ondorio horietarako, amankomunean eta solidarioki.

24. art. Espaloiko zintarrian edo gisakoan ("pasabidea", laburki) oketsa egitean, bere hartan utziko da sestra ofiziala, fatxadak eta espaloiak bat egiten duten gunean zehazten den fatxada lerroan. Dena den, aipatu aldaketa ez da pasatzeko lizentzia eskuratzeko baldintza gisa eskatuko, honako kasuetan izan ezik:

a) Turismo motako hamar ibilgailu edo gehiago benetan hartzeko edukiera duten toki edo lokalak direnean.

b) Autobusak edo kamioiak benetan hartzeko eta gordetzeko edukiera edo bertara sartzeko modua duten toki edo lokalak direnean, ibilgailuen kopurua edozein delarik ere.

c) Udalak, salbuespenez eta behar bezala arrazoiturik, kasu berezietarako horrela erabakitzen denean.

25. art. "Pasabidea" hirian egin ohi den eredu edo diseinuaren arabera egin beharko da, eta lanak egiteko berariazko lizentzia eskatuko da, bai pasatzeko lizentziarako eskabidearekin batera tramitatuz, bai bereiz.

26. art. Pasabidea egiteko lizentzia eraginkor bilakatzeko, Udalak fidantza edo gordailu bat eskatzen ahalko dio eskatzaileari, eskudirutan ordaintzekoa, behar den guztia bere ohiko lehengora ekartzeko. Fidantzaren zenbatekoa Udalaren zerbitzu tekniko eskudunek taxututako kostuan mantenduko da.

27. art. Pasabidea egiteko lizentziak indarra izateko pasatzeko lizentzia beharko da izan, bai eta tasak ordaindurik eta fidantzaren sarrera eginik ere, lizentzia eman dela jakinarazi eta hurrengo hogeita hamar egun naturalen barrenean.

Epe hori bera aplikatuko da aurreikusten den fidantza edo eskudirutako gordailuaren zenbatekoa eguneratzeko eskatuz gero.

Dena dela, eta lizentziaren indargabezia deusetan ukatu gabe, aipatu zenbatekoen dirusarrera egiteko derrigorrezko dirubilketaren tramitazioa egiten segi dezake Udalak.

28. art. Pasabidea egin zein kentzeaz, lizentziaren titularra arduratuko da, alegia, bere kargu eta kontura geldituko da; jardueraren titular berria edo lagapen- hartzailea edo lokal edo gunearen jabea, horrelakorik bada, harekin batera izanen da erantzule, pasabidea kentzeari dagokionean, amankomunean eta solidarioki.

29. art. Bai pasabidea kendu eta zintarria lehengoratzeko kasuan, bai nahitaezkoa izateagatik pasabidea bera egitean, Udalak obra egin dezake ordezeko exekuzioan, aldeztu aurretiko errekerimendurik gabe, zuzenean fidantzaren kargura, eta fidantzarik ez badago edo dirurik aski ez, arduradunari ordainaraziko zaio haren borondatez edo, bertzenaz, premiamendu bidez.

30. art. Paratzen diren disko seinaleak eta zintarriko pintura ere ken eta deusezta ditzakete Udal Zerbitzuek, aurretik gaztigurik egin gabe, pasatzeko lizentzia edozein arrazoirengatik indarririk gabe gelditzen bada.

Tokia erreserbatzeko lizentzia

31. art. Arau hauetan tokia erreserbatzeko aurreikusitako lizentziak hagitik kasu mugatuetan baino ez dira emanen, eta beti ere emate hori trafiko edo ibilgailuen joan-etorriarentzat mesedegarri, eragozpenak kentzeko baliagarri edo nolana ere dela ere onuragarri gertatuz gero, interes publiko orokorrari begira.

32. art. Halako toki zehatz mugatuetan ezin izanen dira inola ere ezarri ibilgailua gelditu edo uzteko debekaguneak, arestian aipatu erreserbatzeak duen xedea bete dezaketenak, jarduera edo lokal jakin batzuen mesedetan.

33. art. Tokia erreserbatzeko lizentziak eskatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskariaren xedea zehazten duen eskabidea, onura jasoko lukeen jardueraren titularrak sinatua.

b) Eskatzen den erreserba beharrezkoa eta trafikoarentzat oro har nahiz interes publikoarentzat onuragarria dela egiaztatzeko txosten mardula.

c) Planoa, eskatzen den tokia ahalik eta zehatzen adierazi eta mugatzen duena.

Aldi baterako erreserbatzeko lizentziarako, aski izanen da artikuluko honetako a) eta c) ataletan eskatzen diren agiriak ekartzea, baita lizentzia zein egunetarako eskatu den.

34. art. Udalaren Gobernu Batzordeak eta, kasua bada, alkateak, erabakirik komenigarriena hartuko du, txosten teknikoak ikusirik. Horiek Udaltzaingoak egiten ditu aldi baterako erreserbatzeko lizentziak direnean, eta Hirigintzako Zerbitzuen Alorrak eta Udaltzainak, berriz, gainerako lizentzietan.

35. art. Udalak bere aldetik har dezakeen erabakiaren bidez beharrezkotzat jotzen dituen baldintzak paratzen ahal ditu ematen den lizentziari dagokionean, eta emate hori berritu edo bere probetxamendua aldatzen ahal da edozein unetan eta kalteordainik izan gabe.

36. art. Seinaleztapen eta paratze gastu guztiak eskatzailearen gain geldituko dira, eta hori izanen da, baita ere, seinaleak behar bezalako egoeraz arduratuko dena.

Gaur egungo jardueren erregularizazioa

37. art. Arau hauek indarra hartzean gaur egun egitatez diren egoerek hiru hilabeteko epea izanen dute haietara egokitzeko.

Lehenagoko egoera batzuekaxo laxoago joka daiteke aldi batean, arau berriak zorrozki betetzeak jarduerari modu larrian eragiten eta kalte egiten ahal badio.

Horietaz den bezainbatean, irizpidea Gobernu Batzordeak hartuko du, bere zuhurtziaren arabera, behar den txosten teknikoak ikusirik eta interesatuek behar den epearen barnean alde z aurretik eskaria eginda.

Gaur egungo lizentziak, aurreko araei jarraikiz emanak, bertzerik gabe baliokidetuko dira, banan-banan Udalak eskatzen dituen egokitzapenak ezta kontzesio horiek, noiznahi, bertan behera uzten ahal direla ukatu gabe.

Barañainen, mila bederatziehun eta lauretan hogeita hemezortziko martxoaren bederatzian. Alkatea, Juan F. Calderón Blanco.
(1998ko apirilaren 27ko NAO, 50.a)